



193. OSOKO BILKURAKO AKTA

Zumaiako herrian, 2024ko martxoaren 21ean, arratsaldeko seietan, udaletxe honetako batzar aretoan Udalbatza eratu da ohiko bilkura egiteko, aurrez zehaztutako eguneko aztergaien arabera. Garaiz eta zuzen deitu direlarik, Udalbatzako kide hauek bertaratu dira:

Lehendakaria: Iñaki Ostolaza Esnal

Bertaratutako zinegotziak:

- Argi Yeregui Egaña
- Aitor Manterola Garate
- Marina Bidasoro Arozena
- Asier Arakistain Alberdi
- Maite Egaña Larrañaga
- Nerea Goiria Mendiolea
- Itziar Etxabe Etxabe
- Joxe Mari Azkue Castillo
- Jose Miguel Antia Albizu
- Ainhoa Illarramendi Azkue
- Iker Mardaras Arrieta
- Ander Olaizola Esnal
- Mireia Aranbarri Ieregi
- Xabier Odriozola Etxaniz
- Duñike Agirrezabalaga Ugarte

Ez bertaratuak: Unai Larrañaga Uranga

Idazkaria: Alexander Marañon Muñoz

Alkateak hasiera eman dio osoko bilkurari.

EGUNEKO AZTERGAIK

1.- AURREKO BILKURAKO AKTA ONARTZEA, BIDEZKO BADA:

(191. zk. 2024.02.29)

191. akta aho batez onartzen da.

Dokumentu kod.	2024IAKU0004-P24/00012
CUDO kodea	000.0081.AAAAF7CV.K.XtqF
Dokumentu Egiaztatzailea Verificador de documentos	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAF7CVK.XtqF



2.- IRIZPENAK.

2.1.- (2022IKIE0016) ZUMAIAKO KARMELDAR OINUTSIEN KOMENTUA BIRGAITZEKO EGIKARITZE PROIEKTUA EXEKUTATZEKO OBRA KONTRATUA ETA PROIEKTUA ALDATZEKO BIGARREN PROPOSAMENA ONARTZEA, BIDEZKO BADA. PROIEKTU HORI TOKI ERAKUNDEENTZAKO ERAIKIN PUBLIKOEN BIRGAITZEA BULTZATZEKO PROGRAMAREN BARRUAN (TOKIKO PIREP) KOKATZEN DA SUSPERTZE, TRANSFORMAZIO ETA ERRESILIENTZIA PLANAREN ESPARRUAN. EUROPAR BATASUNAK – NextGenerationEU – FINANTZATUA.

Alkateak aipatu du gaia batzordean landuta dagoela, txostenak eta dokumentazioa osoko bilkurara ekarri direla eta ondoren txosten horien ondorioa irakurri du:

“Aurkezten den proiektu aldaketarako dokumentu honek elementu berriak eta aldatzen direnak zehaztasunez definitzen ditu.

Beharrezko atalak ditu eta teknikari eskudunek izenpetzen dute proiektu egile eta obra zuzendaritza taldeak. Izapidetu nahi den kontratuaren aldaketak sektore publikoko kontratuei buruzko azaroaren zortziko 9/ 2007 legeak 205 artikuluan jasotako baldintzak betetzen dituela iritzi da.

Txosten honetako batgarren puntuan egindako azterketan zehaztu den bezala, proposatzen diren aldaketak beharrezkoak dira, batetik, administrazio arduratsu batek aurreikusi ezin zituzkeen ustekabeko inguruabarrak azaldu direlako eta ezinbestez hauei erantzuten dietelako.

Eta bestetik, helburu nagusia betetzeko, Zumaiako Karmeldar Karmeldar oinutsen komentua birgaitzeko ezinbestez obra elementuak gehitu behar direlako jatorrizko proiektuaren batgarren aldaketa eta dagokigun bigarren aldaketaren aurrekontuen hasierako prezioarekiko gehikuntza % 21,65ekoa da eta % 50a baino txikiagoa dela Lege honek aipatzen duen topea. Obrako exekuzio epeari dagokionean, txosten honetako laugarren puntuan egindako azterketaren arabera, obra amaiera epea zazpi astez luzatzea eskatzen da eta ondorioz, obra amaiera data 2024ko uztailaren 9an izan beharrean, 2024ko abuztuaren 28ra atzeratzea proposatzen da. Aurrekontuari dagokionez, udalak komentuari exekuziorako aurrekontu partidan aldaketa hori dagokion 73.294,65 euro gehitzeko baimena eman beharko da, eman beharko du.

Sektore publikoaren kontratuaren legearen eta artikuluen arabera Zumaiako Karmeldar Oinutsen komentua birgaitzeko proiektuaren bigarren aldaketarako dokumentua eraikitzaileari bidali zaio eta aztertu ondoren, 2024ko martxoaren 8an bere adostasuna ziurtatzen duen agiria izenpetu du.

Hori guztia kontuan hartuta, komentuari birgaitze proiektuaren bigarren aldaketa onartzea proposatzen da. “

Dokumentu kod.	2024IAKU0004-P24/00012
CUDO kodea	000.0081.AAAAF7CV.K.XtqF
Dokumentu Egiaztatzailea Verificador de documentos	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAF7CVK.XtqF



Alkateak proposamena aurkeztu ondoren, bozka eskatu du.

Aldeko bozka? 16 bozka aldekoak, 9 EH Bilduk, 6 EAJ-PNV eta 1 Euskal Sozialistak.

Beraz, onartuta geratzen da aldaketa

Aldeko botoak: 16 boto (9 EH BILDU, 6 EAJ-PNV eta 1 Euskal Sozialistak)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKIA:

LEHENA.- Zetabi Arkitektura Bulegoa S.L.P.k proposatutako eta idatzitako ZUMAIKO KARMELDAR OINUTSIEN KOMENTUA BIRGAITZEKO EGIKARITZE-PROIEKTUAREN bigarren aldaketa onartzea. Proiektua Toki Erakundeentzako Eraikin Publikoen Birgaitzea Bultzatzeko Programaren barruan (TOKIKO PIREP) kokatzen da SUSPERTZE, TRANSFORMAZIO ETA ERRESILIENTZIA PLANAREN ESPARRUAN. EUROPAR BATASUNAK – NextGenerationEU – finantzatua.

BIGARRENA.- Ondorioz, ALTUNA Y URÍA S.A. enpresari adjudikatutako Zumaiako Karmeldar Oinutsien komentua birgaitzeko egikaritze-proiektua exekutatzeko obra kontratuaren bigarren aldaketa onartzea. Proiektua Toki Erakundeentzako Eraikin Publikoen Birgaitzea Bultzatzeko Programaren barruan (TOKIKO PIREP) kokatzen da SUSPERTZE, TRANSFORMAZIO ETA ERRESILIENTZIA PLANAREN ESPARRUAN. EUROPAR BATASUNAK – NextGenerationEU – finantzatua. Adjudikazio prezio berria da SEI MILIOI EHUN ETA LAUROGEITA SEI MILA EHUN ETA LAUROGEITA ZORTZI EURO ETA LAUROGEITA BOST ZENTIMO (6.186.188,85 €), BEZa barne; zenbateko hori hasierako adjudikazio prezioari proiektuaren lehenengo eta bigarrenengo aldaketek dakarten kostuaren zenbatekoak gehituta lortzen da, aldaketak 2022ko urriaren 10eko 1278/2022 Alkate Dekretuan zehaztutako adjudikazioaren zenbatekoa 1.101.094,20 eurotan (BEZa barne) handitzea baitakar, hau da, adjudikazio prezioaren % 21,65.

Kontratuaren gauzatze epea 7 astetan luzatzen da; obra amaiera data berria, beraz, 2024ko abuztuaren 28a da.

Gainerako baldintzak aldaketarik gabe mantentzen dira.

HIRUGARRENA.- Bigarren aldaketak eskatzen duen kontratuaren prezioaren igoerari dagokion 773.294,65 euroko zenbatekoa onartzea eta xedatzea, kontura.

Dokumentu kod.	2024IAKU0004-P24/00012
CUDO kodea	000.0081.AAAAF7CV.K.XtqF
Dokumentu Egiaztatzailea Verificador de documentos	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAF7CVK.XtqF



LAUGARRENA.- Ebazpen honen berri ematea Kontu-hartzaitzari eta Diruzaintzari, bidezko kontabilitate-idatzoharrak egin ditzaten.

BOSGARRENA.- ALTUNA Y URÍA S.A.ri errekeritzea, kontratuaren behin betiko bermea egokitu dezan kontratuaren aldaketa formalizatu aurretik, jadanik jarrita duen bermea osatuta. Kontratuaren prezioari (BEZa kenduta) gehitutako kopuruaren %5ekoa izango da zenbatekoa, hau da, HOGEITA HAMA KA MILA BEDERATZIEHUN ETA BERROGEITA HAMALAU EURO ETA HOGEITA HAMABI ZENTIMO (31.954,32 €).

SEIGARRENA.- Kontratuaren adjudikaziodunari, ALTUNA Y URÍA S.A.ri ebazpen hau jakinaraztea eta kontratuaren bigarren aldaketa sinatzeko dei egitea. Kontratuaren aldaketa agiria, elektronikoki sinatuko da behin betiko bermea egokitu ondoren.

Behin kontratuaren bigarren aldaketa formalizatuta, obrarekin jarraitu ahal izango da aldatutako proiektuak jasotzen duenaren arabera.

ZAZPIGARRENA.- Alkateari baimena ematea kontratuaren aldaketa formalizatzeko dokumentua sinatzeko, bai eta behar diren izapide guztiak egiteko ere.

ZORTZIGARRENA.- Kontratuaren aldaketa onartzeko ebazpen hau Kontratatuzailearen profilean argitaratzea 5 eguneko epea igaro baino lehen.

BEDERATZIGARRENA.- Ebazpen hau Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioari jakinaraztea, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan Titulartasun Publikoko Eraikinak Birgaitzeko Laguntzak emateari dagokionez.

Dokumentu kod.	2024IAKU0004-P24/00012
CUDO kodea	000.0081.AAAAF7CV.K.XtqF
Dokumentu Egiaztatzailea Verificador de documentos	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAF7CVK.XtqF



2.2.- 2023-2027 EPEALDIRAKO EUSKARAREN ERABILERA PLANA ONARTZEA, BIDEZKO BADA.

2024KO MARTXOAREN 13KO HERRIA BATZORDEAREN IRIZPENA, 2023-2027 URTEETARAKO ZUMAIAKO UDALEKO ERABILERA PLAN ESTRATEGIKOA ETA HIZKUNTZA IRIZPIDEAK ONARTZEARI BURUZKOA.

AURREKARIAK

1.- Zumaiako Udalak 2003az geroztik erabilera plan bat lantzen du bost urtean behin, 86/1997 Dekretuak dioenari jarraituta.

2.— Eusko Jaurlaritzak markatzen du erabilera plana nola landu eta horretarako tresna batzuk jartzen ditu eskura: planak kudeatzeko ereduak, galdetegiak, datu baseak, ebaluazio tresnak... Euskal sektore publikoan euskararen erabilera normalizatzeko dekretu berri bat onartu berri du Eusko Jaurlaritzak.

3.—Baliabide horiek guztiak aintzat hartuta landu du Euskara Zerbitzuak plan berria VII. plangintzaldiari dagokiona, UEMArekin elkarlanean, eta horrekin batera Udalaren hizkuntza irizpideak ere bai. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari planari buruzko txostena eskatu zaio.

IRIZPENA

Ondorioz, 2024ko martxoaren 13ko Herria Batzordeak, honako boto hauekin:

Alde: 3 EAJ, 4 EHBILDU, 1 PSE

Aurka: 0

Abstentzioa: 0

ALDEKO irizpena eman du eta honako Proposamen hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47. artikuluan araututakoari jarraituz, eta erabakia udalbatzako bertan daudenean gehiengo sinplez onartu beharko da:

Lehena.- 2023-2027 urteetarako Zumaiako Udalaren euskararen erabilera normalizatzeko plan estrategikoa eta hizkuntza irizpideak onartzea.

Bigarrena.- Erabaki horren berri Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Herri Administrazioetan hizkuntza normalizatzeko zuzendaritzari jakinaraztea.

Zumaian, 2024ko martxoaren 13an

Dokumentu kod.	2024IAKU0004-P24/00012
CUDO kodea	000.0081.AAAAF7CV.K.XtqF
Dokumentu Egiaztatzailea Verificador de documentos	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAF7CVK.XtqF



Puntu honetan alkateak Aitorri eman dio hitza gaia azaltzeko.

AITOR MANTEROLA:

“Arratsalde on.

Tarteka eguneratu eta onartu egin behar izatea udalera begirako euskara bultzatzeko plana. Eta 1997ko dekretu batean jazo zen plangintzaldian bost urteko ziklotan banatuko direla esaten du plangintza hauek, eta gaur onartuko duguna 2023tik 27ra bitarteko izango da.

Berez, iaz eginbeharrekoa zen hasiera batean, baina administrazio guztietan atzeratu egin da kontua, metodologia eta plana egiteko aplikazioa finkatzeko Jaurlaritzan uste baino denbora gehiago behar izan duelako.

Tarte horretan, dekretu berria onartu berri du Jaurlaritzak, 1997koa ordezkatzeko duena.

Horren arabera sinatu da plan hau, kemen izeneko markoa oinarritzat hartuta.

Hemengo diagnostikoa egiteko galdetegi batzuk erabili ditu gehienbat, besteak beste, bertako udaleko 60 langile baino gehiago betetakuak erabili da.

Horiez gain, 2021ean Urrezko Bikain ziurtagiria lortzeko ebaluazioan jasotako txostena ere aintzat hartu da.

Plan hauetan kudeaketak gero eta garrantzi handiagoa duenez, egitura berezi bat proposatu da planari jarraipena hobeto egiteko.

Helburua da Udala bera euskararen babesgune izatea, eragile aktiboa, eredugarri jokatzeko eta herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzea.

Horretarako oinarria oso ona daukagu.

Zinegotzi guztiok badakigu euskaraz eta gainera lanpostu zerrendako langile denak ere bai.

Horregatik, euskarazko administrazio unitate izendatu dira udalaren sail guztiak.

Horrek zer esan nahi du? Besteak beste, ba lan hizkuntza eta agiriaren sorburu hizkuntza euskara izango dela.

Zenbakitan jarrita helburu batzuk eta planaren puntuazio orokorrera joan da.

850 puntutik 1000 puntura gerturatu nahiko genuke 2027rako.

UEMAren laguntza ere izango dugu horretarako eta haren irizpideak hartu ditugu oinarritzat, Zumaiako udalaren zeren plangintza proposatzeko eranskinean daude jasota eta plan honekin batera aurkeztuta onartuko ditugu.

Esanda bezala, plan estrategikoa bost urtekoa da, baina gero urtero kudeaketa plan batzuk landu eta aztertu dira, jarraipen batzordea, ekintzak zehaztuta.

2024an ekintza horiek, ekintza nagusiak hauek izango dira, egiturak eta antolatzea, eta planaren eta irizpideen berri ematean langile guztiei

Plan hau euskara Batzordean aurkeztu zen aurreko astean ordezkariaren aldeko botoekin. Eta horrez gain, Eusko Jaurlaritzak ere aldeko txostena eman dio Zumaiako plangintza honi.”

Alkateak eskerrak eman dizkio Aitorri gaia azaldu ondoren, eta ondoren bozka eskatu du.

Dokumentu kod.	2024IAKU0004-P24/00012
CUDO kodea	000.0081.AAAAF7CV.K.XtqF
Dokumentu Egiaztatzailea Verificador de documentos	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAF7CVK.XtqF



Aldeko bozka?

Aldeko bozka? 16 bozka aldekoak, 9 EH Bilduk, 6 EAJ-PNV eta 1 Euskal Sozialistak.

Aldeko botoak: 16 boto (9 EH BILDU, 6 EAJ-PNV eta 1 Euskal Sozialistak)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKIA:

LEHENA.- 2023-2027 urteetarako Zumaiako Udalaren euskararen erabilera normalizatzeko plan estrategikoa eta hizkuntza irizpideak onartzea.

BIGARRENA.- Erabaki horren berri Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Herri Administrazioetan hizkuntza normalizatzeko zuzendaritzari jakinaraztea.

3.- UDALBATZAKO ORGANOEN KONTROLA ETA FISKALIZAZIOA.

3.1.- UDALAREN 2024KO 3.. ETA 4. ERREPARO ORRIEN ETA HAUEN ALKATE DEKRETUEN BERRI EMATEA.

203/2024 ALKATE DEKRETUA

AURREKARIAK

2024ko otsailaren 20an kontu-hartzaileak honako erreparo orria jakinarazi dit (3/2024)

Kontu-hartzaileak egindako txostenaren arabera, ohartarazten du Legezko esleipen prozedura jarraitu ez duten fakturak iristeaz gain, indarrean ez dauden kontratuak dituztenak ere iritsi direla.

Eta, honako faktura hauen ordainketaren izapidetzea eten du:

Dokumentu kod.	2024IAKU0004-P24/00012
CUDO kodea	000.0081.AAAAF7CV.K.XtqF
Dokumentu Egiaztatzailea Verificador de documentos	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAF7CVK.XtqF



**b) Indarrean ez dauden kontratu batzuen fakturak iritsi dira
eta honako hauek dira:**

FAKTURAREN DATA	FAKTURA ZENBAKIA	INTERESATUA	KONTZEPTUA	GUZTIZKOA BEZA BARNE
2024/1/31	2024/f24/130	BPXPORT XXI SLU	URTARRILA GARBIKETA ZERBITZUA	12.424,59
2024/1/31	1	URDINETA LERTXUNDI JON	PSIKOMOTRIZISTA-URTARRILEKO ORDUAK	497,00
2024/1/31	19-2024	KALEXKA ELKARTEA	URTARRILA - Gizarte eta hezkuntza arloa eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua	10.000,00
29/01/2024	03/24	GAUTENA	URTARRILA-ATOZTE	1.179,17
				24.100,76

ERABAKIA:

Beharrezkoak diren zerbitzuak ematen jarraitu ahal izateko dagozkien ordainketak egitea agintzen dut.

Alkatea

Dokumentu kod.	2024IAKU0004-P24/00012
CUDO kodea	000.0081.AAAAF7CV.K.XtqF
Dokumentu Egiaztatzailea Verificador de documentos	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAF7CVK.XtqF

**283/2024 ALKATE DEKRETUA****AURREKARIAK**

2024ko martxoaren 6an kontu-hartzaileak honako erreparatu orria jakinarazi dit (4/2024)

Kontu-hartzaileak egindako txostenaren arabera, ohartarazten du Legezko esleipen prozedura jarraitu ez duten fakturak iristeaz gain, indarrean ez dauden kontratuak dituztenak ere iritsi direla.

Eta, honako faktura hauen ordainketaren izapidetzea eten du:

b) Indarrean ez dauden kontratu batzuen fakturak iritsi dira eta honako hauek dira:

FAKTURAREN DATA	FAKTURA ZENBAKIA	INTERESATUA	KONTZEPTUA	GUZTIZKOA BEZA BARNE
2024/2/7	0060	GESMUNPAL	URTARRILA - Betearazpideko zergabilketa	47,27
28/02/2024	240056	ARAZI IKT, S.L.	URTARRILA Algorri natur baliabideen interpretazio zentroaren kudeaketa	5.285,57
2024/2/8	TB-2024-F 13	Randez Dominguez Andoni	URTARRILA: Aita Mari ikastetxea, Foronda eta Sagarbideko berogailuen mantenua	479,52
2024/2/8	TB-2024-F 16	Randez Dominguez Andoni	URTARRILA: Jubilatuen etxeko berogailuaren mantenua	139,66
2024/2/28	78/24	KASTORE GEST, S.L.	Urtarrila Kultura saila	439,77
2024/2/28	79/24	KASTORE GEST, S.L.	Urtarrila Oxford	732,40
				7.124,19

Dokumentu kod.	2024IAKU0004-P24/00012
CUDO kodea	000.0081.AAAAF7CV.K.XtqF
Dokumentu Egiaztatzailea Verificador de documentos	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAF7CVK.XtqF



ERABAKIA:

Beharrezkoak diren zerbitzuak ematen jarraitu ahal izateko dagozkien ordainketak egitea agintzen dut.

Alkatea

Lehendakariak erreparo orriei buruzko azalpenak eta hauen ebazpenen ordainketen aginduen berri eman du.

3.2.- ALKATE EBAZPENEN BERRI EMATEA.

Lehendakariak alkate ebazpenen berri eman du.

4.- MOZIOAK.

4.1.-ATERPE KLIMATIKOEN MOZIOA EUSKAL SOZIALISTAK AURKEZTUTAKOIA

ATERPE KLIMATIKOEN MOZIOA

Gure Autonomia Erkidegoak, Euskadik, egungo eta etorkizuneko erronkei egin behar die aurre, eta erronka horietako handiena klima-aldaketa da, eragin globala eta handiago abaitu.

Klima-aldaketak hainbat inpaktu eragin ditu gure planetan, eta bero-boladak, gero eta gogorragoak eta ohikoagoak, eragiten dituen ondorio kezkarri ugarietako bat baino ez dira.

Uda honetan, gure lurraldea astindu duten bero-bolada gogorren lekuko izan gara, eta ezin dugu ahaztu muturreko gertaera horiek klima-aldaketarekin lotuta daudela.

Zientzialariek hamarkadak daramatzate klima-aldaketaren fokua jartzen eta klima-aldaketak gure egunerokoan eragiten dituen inpaktuen maiztasuna eta eragina areagotzen.

Horren adibide garbia da Euskadik, azken bero-bolada horretan, 1981ean baino bero-erregistro historiko handiagoa izan zuela, eta abuztu erdialdean, inoizko egunik beroena izan zela; izan ere, 45 gradu inguruko tenperaturak erregistratu zituen Euskadiko hainbat tokitan, baita tenperatura horiek gainditu ere, hala nola Solupen (Bizkaia) 45,3 gradu, 1981eko 45 44 graduak gaindituta.

Dokumentu kod.	2024IAKU0004-P24/00012
CUDO kodea	000.0081.AAAAF7CV.K.XtqF
Dokumentu Egiaztatzailea Verificador de documentos	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAF7CVK.XtqF



Euskadi izan da tenperatura altuengatik alerta gorria ezarri duen autonomia-erkidego bakarra, eta aurreikuspenak aise gainditu dira.

Bizkaian, 43, 7 gradu Derion, Galdakaon, 43 gradu. Araban, 44,6 gradu Laudion, 42,2 Amurrian, 40,6 Zanbranan eta 40, 4 gradu Gasteizen.

Era berean, Gipuzkoan, udalerrri gehienak ez dira 40 gradura iritsi, Elgoibar, Arrasate eta Beasain izan ezik, horiek gainditu egin baitituzte.

Tenperatura guztiek, Euskadin, 48 pertsonari eman diete arreta tenperatura altuengatik (30 pertsona Bizkaian, 14 Araban eta 4 Gipuzkoan).

Elkarren segidako bero-boladek deigarriak izan behar dute gure lurraldean eta udalerrietan klima-aldaketara egokitzeke neurriak abian jartzeko, gure biodibertsitatea ezagutzen dugun moduan zaindu eta kontserbatzeko, gure herritarren eta gure ekonomiaren osasuna babestu eta babesteko.

Erronka handia izateaz gain, klima-aldaketaren aurkako borroka eta horretara egokitzeak udalerrri erresiliente eta osasungarriak sortzeko aukera gisa balio behar digute.

Horregatik guztiagatik, Zumaiako Udaleko Talde Eusko Sozialistak MOZIO hau aurkeztu du osoko bilkuran eztabaidatzeko.

Zumaiako Udal plenoak konpromisoa hartzen du udalerrian kanpoko zein barruko espazioak kokatzeko eta seinaleztatzeke, bero-boladen garai eta uneetan pertsonentzako babesleku klimatikoa izan daitezkeen tenperatura ezin hobea bermatzeko.

Zumaia, 2024ko martxoaren 15a

Duñike AGIRREZABALAGA UGARTE
Euskal sozialista udal taldearen bozeramaila

Alkateak hitza eman dio Duñikeri aurkeztutako mozioa azaltzeko. Duñikek alkateari eskerrak eman ondoren honako hau azaldu du.

“Zumaiako aterpe klimatikoak, herritarrak eta kanpotik etortzen direnentzat Zumaira, beroaz babesteko guneak dira, eta udara bitartean helburu horrekin erabiltzeko prestatuta egon beharko dira.

Etorkizuneko klima-proiekzioek adierazi duten bezala, muturreko tenperatura eta bero-boladak gero eta ohikoagoak izango dira eta gaixotasun eta heriotzatasak gora egin dezake horren ondorioz. Hori ikusita, Zumaiako udalak aterpe klimatikoen sare bat osatu beharko du herritarrei eta bisitariei eskaintzeko.

Dokumentu kod.	2024IAKU0004-P24/00012
CUDO kodea	000.0081.AAAAF7CV.K.XtqF
Dokumentu Egiaztatzailea Verificador de documentos	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAF7CVK.XtqF



Aterpe Klimatikoak barrukoak (eraikinak) edo kanpokoak izan daitezke eta helburu nagusia beroak biztanleengan sortu ditzakeen kalteak murriztea da.

Aterpe hauek, konfort termikoa eskeini behar dute, hori da, tenperatura 26° tik beherakoa izan beharko da.

Doakoa izango dira, baliabide egokitutakoak, atsedeen hartzeko eremuak eta erosoak.

Irisgarritasun egokia eukiko dute eta seinalatuta, modu egokian adierazita.

Aterpe hauek aurrera eramateko, epea eta ze lekuak izango dira, argitu egin beharko da, .

Barruko lekuak izan daiteke, kultur edo kirol instalazioak, eleizak, eta bestelako eraikin publikoak.

Kanpoko aterpeak, itzala, haize edo brisa, duten lekuak izango dira, parkeak, kaleak, plazak, ibilbide berdeak, eta iturriak ere nun daude azaldu beharko dira. Ez da gaizki egongo, informazio hau, udalen web orrian egotea, eta herritarrei luzatuta kanpaina informatibo bat egitea ere ondo egongo zan.

Badakit lehenengo aldiz hitz egiten dugula honetaz, eta kontu berri bat dela, baino pausoak ematen hasi beharko gara udararen beroak arintzeko, eta zori txarrez ahaztu gabe beroak handitzen joango direla urteak aurrea dijoazela.

Eskerrak eman nahi nizuen, proposamen honen aurrean zuen babes jasotzeagatik eta badakizue prest nagoela behar duzuen edozer gauzetan laguntzeko eta bultzada bat emateko udara honetarako zerbait aurreratzeko.

Mozioaren akordioak jasotzen duenez, Zumaiako Udalak konpromisoa hartzen du udalerrian barnealdeko zein kanpoko espazioak kokatzeko eta seinaleztatzeko, bero-boladen garai eta uneetan pertsonentzako babesleku klimatikoa izan daitezkeen tenperatura ezin hobea bermatzeko.

Eskerrik asko !!

Alkateak eskerrak eman dizkio Duñikeri, eta hitza eman dio Josemiri, , berak azaldu du EAJ taldea ere ados dagoela baina ez dakitela horrelako plan batek zer suposatzen duen herriarentzako eta moztetik aparte ba jakin beharko dela ze eraikin aukeratu, horretaz mintzatu eta bozkatu.

Ondoren alkateak bere taldearen jarrera azaldu du esanez, alde bozkatuko dutela, baina ikusi behar dela nola txertatu leiken dugun larrialdi planarakin. Bestalde azaldu du Kostan bero episodioak zorionez ez direla hain larriak eta udalean dagoen lan karga ikusirik ahaleginduko direla gaiari aurre egiten baino ez dakiela udarara helduko diren.

Ondoren alkateak bozka eskatu du.

Aldeko bozka?

Aldeko bozka? 16 bozka aldekoak, 9 EH Bilduk, 6 EAJ-PNV eta 1 Euskal Sozialistak.

Dokumentu kod.	2024IAKU0004-P24/00012
CUDO kodea	000.0081.AAAAF7CV.K.XtqF
Dokumentu Egiaztatzailea Verificador de documentos	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAF7CVK.XtqF



Aldeko botoak: 16 boto (9 EH BILDU, 6 EAJ-PNV eta 1 Euskal Sozialistak)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKIA:

Zumaiako Udal plenoak konpromisoa hartzen du udalerrian kanpoko zein barruko espazioak kokatzeko eta seinaleztatzeko, bero-boladen garai eta uneetan pertsonentzako babesleku klimatikoa izan daitezkeen tenperatura ezin hobe bermatzeko.

5.- ESKARI – GALDERAK

Duñikek aipatu du Foru Plazan aparkamentuak kentzearen inguruan keak jaso dituela eta ondoren Alkateak azalpenak eman dizkio. Prozesua azaldu du eta aipatu du obra aurretik ere bilerak egin zituztela.

Helburua plaza berreskuratzea dela, bestalde dauden aparkamentuak ez dituztela asetzen bizilagunen beharrak eta udalaren helburua dela bertako bizilagunen hobe beharra.

Bestalde aipatu du aldaketa guztiak kostatu egiten diala eta gehienetan kontrako iritzia izaten dituztela, baino beraien ustez plaza erakargarriagoa eta beste bizitza bat izango duela oinezkoentzat.

Alkateak eskerrak emanez bukatu du osoko bilkura.

Eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkate Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, arratsaldeko seiak eta hemezortzi direnean eta nik, Idazkariak, fede ematen dut.

Idazkaria

Dokumentu kod.	2024IAKU0004-P24/00012
CUDO kodea	000.0081.AAAAF7CV.K.XtqF
Dokumentu Egiaztatzailea Verificador de documentos	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAF7CVK.XtqF